

# PIPAŠ-EN CHAKURRA

## II

*Moriko* etzan eizerako jayua, eta eiztariyak bigaldu zuten Pipaš-en gana, nagusiyari eskumuñak ugari emateko, agindu ondorian.

Pipas-ek berriz, chakurra bario, diruba biarrago zuben, naiz esku-muñik gabe gelditu.

Baña diruba nola edo ala sortzeko, ez zuben chakur ura besterik.

Buru auste eta katramilla abetan zebilela, arkitu zan lantegi aundi bateko nagusiyarekin: gizon prestu eta buru argiya, erri guziyan maite zutena, bai bera eta baita-re bere emaste kupitsua, batayuan Piedad izena jarriyagatik, errikoak *D.<sup>a</sup> Fiera* deitzen ziotena.

*D.<sup>a</sup> Fiera*-ren senarra, guztiz asarre zegon, lantokiko gorde lekuan arratoyak egiten zizkaten gaiztakeriak. Ondatzen ziyoten lan dana, eta aletin guziyak alperrikakuak ziran. Sayatu zan katubak eraman ta, gizonak somatu dituben korapillo guziak jarrita, bañan alperrik. Iñolare ezin burutu zuben arratoyakin.

Au aitzeakoan ala diyo Pipaš-ek deadarka:

—Nik garbituko ditut beorren arratoi guziyak.

—¿Zuk?

—Nik, edo nere chakurrak; badaki chakurra ta ni, anima salbo, biyak bat gerala.

—Ez nekiyen baña.....

—Bai jauna, eramango degu ara nere *Moriko*, eta ikusiko du zer garbitasuna.

—Gaur bertan, beriala eraman biar da.

—Ori ezin liteke, zergatik gašo samar dago.

—¿Gašo?¿Gašua?¿Zer du?

—Ez dakit *almorranak*, edo agiñeko miña; bañan orlako zerbait izan bear du.

—Orra.....

—Bañan iru bat egun barru sendatuko da, eramango degu beorren lan tokira, eta ikusiko du.

Esan eta egin, andik iru egun barru, illunabar aldera eraman zuten gure *Moriko*, esan dan leku artara eta giltzapian ichi, ta an laja zuten. ¡A zer luak egin zituben! Ez nagusiyak. Ez Pipas gizarajuak.

Aurrero-ko iru egun ayetan biribildu zituben erriko zoko guziyak, zaldi toki, ukullu, arratoi bat usandu zitekien zulo guziyak.

Sekulakuak arrapatu ta ill zituben, ta baita egin ere meta añako pilla izugarri bat.

*Moriko* ichi ta laja zuten lekuak, leyo zulo alako batzuek zituen goi aldian, eta chakurra lo estitsu eta atsegiñian zegon bitartian, Pipas-ek bota zituben barrura arratoi ill ayek guziyak.

Urrengo goizian *D.<sup>a</sup> Fiera*-ren senarra eta Pipas, leku artara juan eta atiak iriki zituztenian, ikustekua zegon barren aldi ura.

Lur guztia arratoi illez estalia ageri zan.

Arriturik jaun ura, batera begira eta bestea begira, ala ziyon:

—Gezurra dirudi, chakur orrek onenbesteko lanak egitia. Gašua, lo dago; ondo premiya izango du bai.

Premiya ez baña, logalia bi. Oraindik esnatu gabe zegon. *Moriko-k*; ez eper-zakur, baña alper-zakur izateko jayua izan biar zuben.

Zana zala, lantegiko nagusiya choraturik an ikusi zubenakin: «eskatu zazu nai dezun guziya, esan ziyon, bañan biardet nik chakur ori».

Nai bazuben eta ez bazuben, Pipas-ek an saldu biar izan ziyon.

¡A zer diru mordoska eman ziyon *D.<sup>a</sup> Fiera*-ren senarrak!

¡A zer ziriya sartu ziyon *Moriko*-ren nagusi Pipas-ek!

A. DARRA

